

Gela orriak:

EUSKAL HERRIA MUSEOĀ



AURKIBIDEA:

SARRERA.....	3. orria
BEHEKO SOLAIRUA.....	4. orria
Eraikinaren Historia.....	5. orria
Historiaurrea.....	7. orria
Habitat eta Populaketa.....	8. orria
Kartografia.....	9. orria
LEHENENGO SOLAIRUA.....	10. orria
Nafarroa.....	11. orria
Iparraldea.....	12. orria
Gipuzkoa.....	13. orria
Araba.....	14. orria
Bizkaia.....	15. orria
Euskal Herria Munduan.....	16. orria
Foru abolizioa eta Oraingo egoera.....	17. orria
BIGARREN SOLAIRUA.....	18. orria
Herri Kirolak.....	19. orria
Mitoak eta Sinismenak.....	20. orria
Dantzak.....	21. orria
Musika Akademikoa.....	22. orria
Herri Musika.....	23. orria
Euskara.....	24. orria
Gastronomia.....	25. orria

Euskal Herria Museoa Alegria jauregi barrokoan du egoitza. Jauregi bezala 1733an eraiki zen. Bizkaiko Foru Aldundiak 1982an eskuratu zuen oinetxea, eta Euskal Herria Museoa izateko konpondu zuen. Helburua hauxe zen: erakusketa bat sortzea foru inguruaren esanahi historiko, politiko eta kulturala ulertzen eta Euskal Herriak osatzen duen komunitate espiritualaren ezaugarriak azaltzen laguntzeko.

Museoak lau solairu ditu. Beheko solairuan, sarrera eta Euskal Herriak izan duen habitat garapena azaltzen zaizkigu. Lehen solairuan, bilakaera historikoa eta egungo konfigurazio politikoa eragin duten gertaera garrantzitsuenei buruzkoa da. Bigarren solairuan, kirola, folklorea, jaiak, musika, dantza, sinesmenak edo mitoak bezalako adierazpenak daude azalduta. Eta azken solairua, aldi baterako erakusketen gunea da.



Beheko solairua



Lehenengo solairua



Bigarren solairua



Ganbara

BEHEKO SOLAIRUA



- Harrera - Denda
- Aurkezpena
- Eraikinaren historia
- Historiaurrea
- Habitata eta populaketa
- Lurraldea eta biztanleak*
- Kartografia



Beheko solairua harrera, informazio eta denda eremua da. Bertan, Euskal Herria Museolari buruzko datu praktikoak aurkituko ditugu. Sarrera ondoan eraikinaren historia azaltzen duen gela dago. Horretaz gain, solairu honetan Historiaurretik hasi eta "*Habitat eta populaketa*"ri buruzko gunea dago, hemen maketa eta panel bidez Euskal Herriako bizitoki ezberdinen garapena azaltzen zaigu. "*Lurraldea eta biztanleak*" deritzon ikus-entzunezko gela ere badago eta bertan Euskal Herriak dituen paisaien aberastasuna eta gizakiak hauetan izan duen eragina ikusi ahal izango dugu. Bukatzeko, euskal kostaldea adierazten duten kartografia bilduma ederra aurkituko dugu.

ERAIKINAREN HISTORIA

Alegria jauregia, 1733ko eraikin aparta da, 1937an, Gerra Zibilean, Gernikak jasandako bonbardaketatik libre geratu zen gunean kokatua.

Baina, eraikinaren historia askoz zaharragoa da, lotura estu-estua baitu Euskal Herriaren bilakaerarekin.

DORRETXEA:

Lehen eraikina, XVI. mende hasierakoa da. Dorre bat zen, defentsarako eraikia, Erdi Aroan zehar gertaturiko oinaztarren eta ganboatarren arteko liskar eta borroken erakusgarri. Iburguen sendia bici zen hemen, Butron-Muxika Bizkaiko oinaztarren buru zirenen ahaidea ziren.



Ibarguendarra, bertako familia noble bat zen. Familia honetako senide batek, Iñigo Urtiz de Iburguenek, 1526ko Bizkaiko Foru Berriaren idazketa lanetan parte hartu zuen.

Argazkian ikus daiteken Trumoi-zulo hau da jatorrizko eraikinari zegokion tipologia militarren aztarna bakarra. Izan ere, trumoi zuloak irekidura izateagatik hartzen du zuloak izena, trumoi deitzen baitziren, garai hartan, artilleriako zenbait pieza.

JAUREGI BARROKOA:

Eraikin berria, Euskal Herriko jauregi barroko tipokoa da, bizitzeko gustu hiritar berrietara egokitua: itxura kubikoa, aurrealde dotorea, leiho zabalak eta abar dituena.

XIX. mendeaz geroztik, jabeek Montefuerte Kondeen noble titulua hartu zutela eta, jauregia izen horrekin ezagutzen da. Aurrealdearen simetria pixka bat apurtu zen XX. mende hasieran, jabeek euren lehen deiturako (Allendesalazar) armarria ezarri zutenean.

Atzean, lorategi ederra zabaltzen da, jauregiari inguru berde, lasai eta baketsua ematen diona.

Barruan, espazioen banaketa eta dotorezia, bertan bizi zen familiari zegokiona zen. Behean, sukaldea, ukiuluak, ardandegia eta gordetegiak zeuden. Lehen solairua, etxebizitza noblea, senideen logelak, bisitarien arrera gela, bulegoa, liburutegia eta kapera zituen. Bigarren solairuko galeriak, bere arku handiekin, beroa eta argia ematen zien bertan



solasean eta orratz lanetan biltzen ziren emakumeei. Zurezko egitura apartaz estalitako ganbaran, trastelekuak zeuden.

SUTEA:

1718an, Matxinada izenez ezaguturiko errebolta soziala gertatu zen. Arrazoia, Felipe V.ak euskal aduanak Ebrotik itsas ertzera lekualdatzeko saioa izan zen, portuetara iristen ziren merkatalgaiak garestituz. Urdaibai eskualdea, Gernika barne, aldaketa hauengatik bereziki aztoratu zen, matxinatuek Alegria dorrea erre zutelarik, barruko altzariak eta guzti. Behin errebolta baretuta, etxea berreraiki zuten gaur egun daukan Jauregi itxura emanez.

GERNIKA GAUR:

Bizkaiko Batzarrak aspaldi-aspalditik biltzen ziren Gernikan; baina hiribilduaren sorkuntza juridikoa, eskubide eta betebeharrak zituela, 1366an gertatu zen. Hiribildu lasai honen historia guztiz irauli zen 1937an bonbardaketa baten ondorioz, ia erabat suntsitu zutenean. Urte gutxiren buruan, Gernika errautsetatik berpiztu eta industria gune azkarra bihurtu zen. Gaur egun, turismoa nagusitzen ari den zerbitzu hiria da gehienbat.

Erdi Aroko hiri-harresitik at zeuden Alegria jauregia eta baita Gernikako Arbola eta Antiguako Ermita zegoen landa ere, orain Batzar Etxeak betetzen duen lekua, eta Santa Klara komentua. Eraikin hauek, balio historiko handiko multzo monumentala osatzen dute. Eta, horri, jauregiko lorategia gehitu behar zaio, bere baitan Euskal Herriko ekosistema desberdinak eta Chillida eta Moore-ren eskulturak biltzen dituena.



HISTORIAURREA

ARO GEOLOGIKOAK:

Lurraren azalera etengabe aldatzen ari da. Bizia behin eta berriro biziberritzen ari da, itxuraldatuz eta ingurura egokituz. Baina gauza bakoitzak bere erritmoa du. Lurraren adina 4600 milioi urtekoa bada, 4000 milioi baino gehiago urte eman ditu inolako bizi motarik gabe, eta 4598 bere gainean gizakirik ez duela.

Bi milioi urteko giza bizitza huskeria da lur gaineko bizitzaren bilakabidearen aldean. Afrikan espeziea sortu eta askoz geroagoak dira euskal lurretan

aurkitutako giza aztarna zaharrenak; gure aroa deitzen dugun hau, aldiz, ez da orain Euskal Herria izenez ezagutzen den lurralde honetan agertutako lehen giza aztarnen adinaren ehuneko bata ere.



HISTORIAURREA eta ARTE PALEOLITIKOA EUSKAL HERRIAN:

Euskal kobazuloetan, munduko arte paleolitikoaren adierazpide hoberenetakoak gordetzen dira.

Animalien irudikapenak dira gehienak. Maiz elkarrekin aurkitzen badira ere, ez dute eszenarik osatzen, animalia bakoitza margolan bat da. Marra geometrikoak eta bestelakoak ere badira, interpretagaitzak.

Horman edo hezur nahiz harri gainean eginda, haien egileengandik milaka urteko aldea egoteak mirespena areagotu besterik ez du egiten. Zer asmo zuten? Ezinezkoa da erabateko erantzuna ematea.

Arte paleolitikoak lerroaren nagusigoa du ezaugarri. Irudi hauetan hainbat teknika, estilo eta errepresentatzeko era desberdin nabarmen dira. Batzuek errealismorantz jotzen dute, beste batzuk abstrakziorantz; besteak naturalistagoak dira; edo eskematikoagoak.

Deskribapen edo sailkapenez at, egileek zer nahi zuten jakin gabe ere, komunikatzeko, emozioa eragiteko ahalmen handia dutelako hartzen da artelantzat: kezka espiritual horrek, irudiaz beraz haragoko adierazpenak, biztanle haiengana hurbiltzen gaituzte, jauzi teknologiko guztien gaineratik.

HABITATA ETA POPULAKETA

Mendeetan zehar, landa giroan, etxea izaki sozial, ekonomiko, erlijioso, fiskal eta baita politikoa ere izan da. Oraindik ere, hein handi batean, nortasun emalea da bertan bizi den familiarentzat.

Izena duen guztia omen dela dioen herri batean, etxea da familiari izena ematen diona. Izan ere, horrela sortu dira euskal deitura gehienak.

ELIZA, LANDA GIROKO PAISAIAREN EGITURATZAILEA:

VIII. mendeaz geroztik, komunitate egitura ematen dien eliza baten inguruko herririk aipatzen dituzte agirik. Landa giroko komunitate gehienek orain arte iraun dute, eta haien elizak egokitu izan dira beharrak aldatu ahala. XVI. mendean, eraikitzeko eklosioa zabaldu zelarik, zenbait elizak konponbide aparta bilatu zuten: zurezko estalpe sofistikuak, harrizko gangen antzera eraikiak.

HERRI ARKITEKTURA:

Euskal baserria, XV. mende bukaeran sortzen da. Eraikin hau bizitokia, dolarea, ukulua, aletegia edo lastategia da, eta hala islatzen da bere arkitekturan, haren ezaugarri fisikoa kutxa izatearena da, bilgune handi itxia. Tipologia desberdinak daude eskualde, garai, material, ahalmen ekonomiko, jarduera nagusi eta bestelako aldaeren arabera, baina eraikinaren kalitate handia da denen adierazgarri.



LURRALDEA ETA BIZTANLEAK
(15 minutuko ikus-entzunezkoa)



KARTOGRAFIA

Jatorrian, geografia eta kartografia, zientzia militarrek ziren. Euskal Herria, sarritan elkarren aurka jarritako bi estaturen arteko lurralde mugakide izateak, berari buruzko mapa, plano eta irudiak ugaritu ditu.

Horrez gain, itsas eta lehorreko garraioak, Gaztela eta Frantziako printze eta printzesen arteko ezkontzek, merkatalgaien pasabideen kontrolak, jabegoen arteko mugei buruzko auziek, etb. Euskal Herriaren inguruko mapa, plano eta irudi ugari sortzen lagundu zuen.



NABIGATZEKO TRESNAK:

Nabigatzeko tresnak kokapena zehaztu, norabidea eta distantzia neurtu, abiadura ezagutu, uraren sakonera neurtu, mapak zehatz irakurri eta fenomeno meteorologikoak behatu beharrez sortu izan dira.

XIV. mendean, Atlantikoko zein Mediterranioko Europan, alturako nabigazioaren garapen handia gertatu zen, bai nabigatzeko tresnak zabaldu zirelako, bai eta zenbait kartografia eskola garatu zelako. Aurkikuntza aro berri bat zetorren, eta hartan euskaldunek eragin zuzen-zuzena izan zuten.

ITSAS KARTOGRAFIA:

Itsas kartak, alegia, itsas mapak, XIII. eta XVII. mende bitartean portulano izenez ezagunak, nabigazioan erabiltzeko eginak dira. Berezko baliabideak zituzten itsasoa eta honen ertzak irudikatzerakoan, hala nola lurmutur, portu edo eta itsadarren nabarmentzea, benetako tamaina distortsionatu arren, horrela marinelei informazio praktikoa eskaintzen zitzaielako.

Euskal kostaldea XVI. mendean gerotik dago xehe-xehe deskribatua eta kartografiatua, euskal portuak Gaztela Barrena eta Ipar Europa lotzeko estrategikoki kokatuak zeuden eta.

ESKOLA KARTOGRAFIKOAK:

XVIII. mendetik aurrera, zientzia kartografikoaren aurrerapenek emaitza praktikoa dute: mapa gero eta zehatzagoak, bai muga-lerroak itxuratzerakoan, bai errepresentatutako elementuen kokapen zein haien arteko distantziak finkatzerakoan. Halaber, mapak argiagoak dira, informazio gehiago eskaini eta hau begien bistan errazago eta ulergarriago agertzen da. Aldaketa tekniko eta formal hauek guztiek, ordea, ez dute mapen balio estetikoak galarazten edo gutxiagotzen, izan ere, hasieratik bilatu izan baita mapetan edertasuna, informazio grafiko hutsetik harago.

LEHENGO SOLAIRUA



- Historiaren sartzea*
- Nafarroa
- Iparraldea
- Gipuzkoa
- Araba
- Bizkaia
- Euskal Herria munduan
- Foru abolizioa eta oraingo egoera

Lehen solairua historiaren bilakaera, gaur egungo egitura politikoa merkatu eta kultur sozietateak sortzera eraman dituen gertakariei buruzkoa da. Aipatutako gertakari historiko desberdin hauek kuadro, grabatu, objektu eta erretratuetan isladaturik daude. Lehenengo "*Historian sartzea*" deritzon ikus-entzunezko gunearekin topo egiten dugu. Jarraian Nafarroa, Iparralde, Guipuzkoa, Araba eta Bizkaia lurralde historikoen egitura, foruei dagokienez, nola antolatzen ziren. Honen ostean, "Euskaldunak munduan" gaiari buruzko gela aurkituko dugu. Hemen, arrazoi bat ala bestea zela eta XIX. mendean Ameriketara erbesteratu behar izan zuten euskaldunak gogoratzen dira eta honekin batera, euskaldun famatuak: Elcano, Loiolako Ignazio Deun, etab. Azkenik, lehenengo solairuko bisitaldia Foru-abolizioari eta gaur egungo egoerari buruzko gaiarekin bukatzen da.

HISTORIAREN SARTZEA (8 minutuko ikus-entzunezkoa)



NAFARROA



Nafarroako erresumaren eragina oso nabarmena izan zen Erdi Aroan. Aritza sendiaren inguruan sortu zen IX. mende hasieran eta X.ean Ximenotar dinastiak egin zuen aurrera. Hegoalderantz zabaldu zuten erreinua, ordura arte arabiarren menpe zeuden lurraldeak, bai konkista zein ezkontza aliantza bitartez eureganatuz.

XI. mendearen amaieratik aurrera, Nafar erresumaren bilakaerari dagokionez Aragoi eta Gaztelaren aurka izan zituen borrokek ezarri zuten ardatza, bi erresuma horiek hegoaldeko aukera moztu ziotelako. Esan behar da, halaber, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Errioxako lurraldeak ere nafarrak izan zirela XII. mendera arte, eta orduan Gaztelaren eskuetara iritsi zirela. Gertaera horien ondorioz, eta kontuan hartuta tronoan dinastia frantziarrak instalatu zirela, Nafarroako Erresumaren politikak Pirinioen iparraldeko norabidea hartu zuen.

XIV. mendean Beaumont eta Agramontarren leinu nobleek erabat ahuldu zuten monarkiaren boterea euren borroekin eta abagune hori Fernando errege Katolikoak, aprobe txatu zuen 1512an Nafarroako Erresumaren atal penintsularra Gaztelako koroan integrazteko, eta Behe Nafarroa Foix-ko dinastiaren esku geratu zen.

Nafarroak, konkistaren ostean, bere foru araubidea mantendu zuen eta horrelaxe frogatzen du foru-baimen eskubideak, hau da, Gorteen eskubidea zuten erregearen dekretuen aplikazioari gaitziritzeko eta, erregearen dekretuei ez ezik, baita Aita Santuaren bulei ere baldin eta horiek Nafarroako Foru Nagusiaren aurka egiten bazuten.

IPARRALDEA



Iparraldearen barruan Lapurdi, Zuberoa eta Behe Nafarroa daude eta esparru hori, lurraldetasunari dagokionez, XIV. mendean egituratu eta finkatu zen.

Erdi Arotik aurrera Iparraldearen lurralde harremanak Erresuma Karolingioa eta Iruñako Erresumaren artean ibili ziren, Gaskoinako nobleziak famili harremanak zituelako azken horrekin. Behe Erdi Aroan Iparraldea Akitaniako dukerri moduan zegoen egituratuta eta horregatik Ingalaterra, Frantzia, Gaztela eta Nafarroa arteko gatazketan murgilduta zegoen. XII. mendearen erdialdean Errikardo, Lehoi-Bihotzekoaren Ingalaterrarekin egin zuen bat eta lotura horrek Euskal Herria Kontinentalaren erakundearen egituraketaren hastapenak eragin zituen.

Horrela, bada, Lapurdik bere "Biltzarra" edo Batzar mailako bilera zuen, hauek Uztaritzen egiten ziren. Zuberoan antzeko sistema zegoen, Biltzarra, eta "Silbiet" izenekoa, eta bilerak Lextarren (Maule) egiten ziren. Eta Behe Nafarroan bertako merindadea eratu zuten, Nafarroako Koroak zituen sei merindadeetatik bat, eta horrela jardun zuten 1512ra arte, Gaztelak Antzinako Erresumaren atal penintsularra konkistatu arte. Behe Nafarroa orduan bereiztu egin zen eta Erresumaren kategoriarekin jarraitu zuen 1572ra arte. XVI. mendetik aurrera Estatu Orokorrak ezarri ziren eta eskualde bakoitzak bere batzarra eta eskuordeak zituen.

GIPUZKOA



1025ean azaldu zen lehenengoz Gipuzkoa izena, hain zuzen ere "senior Garsia Azenariz de Ipuscua" jaunak eta bere emaztea zen "doña Galga-k" egin zuten dohaintza baten, Olazabalgo San Salvador monastegia dohaintzan eman ziotenean San Juan de la Peñari. Dohaintzan eman zuten monastegi hori, Hernaniko San Sebastian eta Arizetako (Bergara) San Pedrokekin batera, eskualde osoko herritarren erreferenteak ziren.

Dena dela, oso denbora motzean Gipuzkoako paisaiak aldaketa nabarmena jasan zuen, ia lurralde osoan 25 hiribildu sortu zirelako (Oñatiko jaureria 1846an integratu zen), landa esparruak hiribildu horien ardurapean geratu baitziren.

Donostia izan zen, 1199an, sortu zen lehen hiribildua, Nafarroako Erresumari itsasoratzeko gunea emateko. Horren ostean Hondarribia sortu zen. 1200ean Gaztelak lurraldea bereganatu zuen eta kostaldean zehar hiribilduak sortzeko politikarekin jarraitu zuen (Getaria, Zarautz, Mutriku, etab.) eta baita Ori ibaiaren haranean ere (Tolosa, Ordizia,...).

XIV. mendean ez-egonkortasun politikoa nabarmena zen (leinuen arteko borrokak), eta biztangune berri horietan, adibidez Azpeitia, Azkoitia edo Eibarren, harresiak eraiki zituzten. Horrek esan nahi du inguruetako lurraldeak ere askatu egin zirela eta leinuak nagusitu ziren.

Ahaide Nagusiak erbesteratu ondoren, Gipuzkoak bere burua antolatzeari ekin zion, hain zuzen ere "Cuadernos de Ordenanzas de Hermandad" izenekoen bidez. Lehenengoz 1375ean idatzi ziren. Hiribilduak Batzar Nagusietan biltzen ziren, urtean bi aldiz. XVI. mendean Diputazioa sortu zen, Batzarren artean jarduteko.

ARABA

Arabako lurraldea, Gorbeia inguruko hegoaldeko mendietan zehar luzatzen zena, errege asturiarren proiektu politikoaren xedea izan zen, eta hauek, ezkontza edo gerra-liskarren bidez, bere menpean hartzen saiatu ziren. Asturiarren orbitaren barruan sartzeak Arabako aristokraziak IX. mendetik aurrera asturiarrekin ahaidetzea ahalbidetu zuen.

Errioxar Araba nuklear horretatik baztertuta zegoen, Kordobako emirrek igorritako espedizio militarren igarobidea zen, harik eta Iruñeko Antso Gartzes I.a erregeak X. mende hasieran eremua menpean hartzea lortu zuen arte. Harrezkero, eta XI. eta XII. mendeen zati handi batean, Arabako lurraldea Iruñeko monarkiaren barruan politikoki integratua gelditu zen, 1199. urtean Gaztelako Alfontso VIII. erregeari eman zitzaion arte.

Garai hartan, hiribildu ugari sortu ziren, hauek foru bereziak zituzten eta beraien bidez pribilegioak, frankiziak eta salbuespenak ematen zitzaizkien bertako biztanle guztiei. Hiribilduei asignatu gabeko herrixkek oraindik ere jaunen esku zirauten, eta hauek Arriagako Kofradia deitutakoaren barruan taldekatu ziren, elkarte honek 1332. urtean bere burua desegin zuen, eta ondorioz, lur hauek Gaztelako Koroara batu ziren.

Jaun feudalen aurrean defendatzeko, landa eremuan ordena ezartzeko eta gaizkileez libratzeko, herrixka eta hiriak maila handiagoko erakundeetan antolatu ziren, *Hermandadeko Koadriletan* alegia, azken hauek, bestalde, 1463. urtean Arabako Ermandade Nagusia ekarri zuten, eta erakunde honek lurralde historikoaren eremua definitzen lagundu zuen. Horretarako buru epaile betearazlea zegoen, Ahaldun Nagusia alegia, eta kargu hori 1476. urtean zegoeneko agirietan ageri zen. Koadrilen ordezkari guztiek, biltzarrean bilduta, Batzar Nagusiak osatzen zituzten.



BIZKAIA



Bizkaia izena lehenengoz IX. mendearen amaieran idatzi zen Alfontso III.aren Kroniketan azaltzen da eta orduan Nerbioi eta Deba ibaiaren artean zegoen lurraldea izendatzeko erabiltzen zen. Apurka-apurka jatorrizko gunee horri beste eskualde batzuk batu zitzaizkion, hain zuzen ere, lurralde horiek Bizkaiko jaunen familiari lotuta zeudelako: 1211n, Durangaldea, aurrerago Enkarterriak (bi merinalde horiek euren Batzarrak mantendu zituzten), Orduña XV. mendean eta, azkena Orozko izan zen, XVIII. mendean.

Kondairak dioenaren arabera Jaurerriko lehen jauna *Jaun Zuriak* izan zen, IX. mendean bizkaitarrek lurraldearen defentsa zuzentzeko aukeratu zuten atzerritarrek. Trukean baso, sagardi eta beste ondasun batzuk jaso zituen. Kondaira albora utzita, benetan ezagutzen den lehen jauna Iñigo López izan zen. XI. mendean. Nafarroako García erregeren basailua izan zen eta, geroago, Gaztelako Alfontso VI.arena. Harotarren leinua hasi zuen eta familia hori, XII. mendearen erdialdeko urte batzuetan izan ezik, Jaurerria gobernatu zuena izan zen, harik eta legezko oinordetzaren bidez, XIV. mendearen erdiaren inguruan Lara familiaren eskuetara iritsi arte. Beranduago, Trastámara familia izan zen eta horretako kide bat, Joan infantea, Gaztelako errege koroatu zuten, Joan II.a izenarekin, eta orduan jaurerria erresuman integratu zen.

Hori gorabehera, Jaurerriak bere erakundeak eta bere foruak mantendu zituen eta Gaztelako errege-erreginek, aldi berean Bizkaiko jaun-andreak ere bazirenek, zin egitera behartuta zeuden. Foruaren lehenengo idazketa 1452koa da. 1526an aldarazi zen eta eraldaketa hori Foru Berria izenarekin ezagutzen da. Hiribildu eta elizateetako eskuordeak (Jaurerria eratzen zuten toki erakundeak) Gernikako Batzar Nagusietan biltzen ziren.

EUSKAL HERRIA MUNDUAN

Penintsula iberiarraren eta Europako kontinente arteko pasalekua izateak, eta Itxaso ondoan egoteak, euskaldunen mugikortasuna lagundu dute mendeetan zehar. Testu klasikoetan ere euskaldunak Erromatarren Inperioaren hainbat bazterretan zeudela jasota dago. Merkataritzak eta arrantzak horietako asko munduan barrena ibiltzera eraman zituzten, itsasoan zehar, merkatari gisa Europa Iparraldean eta Sevillan, bakailao-arrantzale eta baleen ehiztari gisa Ternuan eta Islandian.

Estatu Modernoen eraketan ere eginkizun handia izan zuten euskaldunek, militar, eskribau edo jurista gisa Austriarren gorteetan eta Elizan. Mundu Berria aurkitu ondoren euskaldunek eginkizun garrantzitsua izan zuten, Garaiko potentzia europarrekin berdinen pareko harremana izango dute, baina beti Elizaren, Gaztelako Koroaren edo Frantziako erregearen zerbitzuean. Konkistatzaileak Mexiko eta Perun, kortsarioak Karibearen edo Mediterraneoan, misiolariak Asiako hego-ekialdean, itsasgizonak Itsaso Barean, etab.

Munduan barrena ibilitako euskaldunen zerrenda bukaezina da: Juan Sebastián Elkanogandik hasita, honek munduari lehenengo bira eman zion, Catalina de Erausorenaganaino, honek alferrez kargua gizonezko mozorrotuta bete zuen moja abenturazalea izan zelarik.

XIX. mendean diasporaren hasierari ekin zitzaion, milaka euskaldunek bizitza berriari ekin zioten pobreziatik, gerretatik ihesean edo esperientzia berrien bila beste kontinente batzuetan.



FORU ABOLIZIOA eta ORAINGO EGOERA

Liberalismoak Antzinako Erregimenaren aurka eraman zuen borroka prozesu zaila izan zen, eta Euskal Herrian ia mende bat iraun zuen: Frantziako Iraultzarekin hasi eta Bigarren Gerra Karlistarekin amaitu zen, foruak abolitu zituztenean. Hala ere, foru erregimenen aurkako lehendabiziko erasoak lehenago gertatu ziren, monarkia absolutu borbonikoen zentralismotik etorri ziren, hala Frantzian nola Espainian, eta esparru politiko eta akademikotik hitzarmenduta zeuden. Frantziako Iraultzak foru sistema Iparraldean behin betiko abolitzea ekarri zuen. Gainerako lurraldeetan, berriz, prozesu hori XIX. mendean hasi zen indar handiz.

Lehen Gerra Karlistak, Isabel II.aren (Fernando VII.aren alaba) eta Karlos M^a Isidroren (Fernando VII.aren anaia) arteko gatazka izan zen. Azken batean, Europa osoan gertatzen ari zen borroka ebazten zuena. Euskal Herrian bereziki bizia izan zen foruen berezitasuna erantsi zitzaielako.

Gerra honen amaieran foru sistemak jasan zituen aldaketen ostean, Euskal Herriko politikariek, militarrek, juristek eta historialariek Foruak babestu zituzten ia aho batez, bereizketa politikorik gabe, eta foruzaletasunaren eta karlismoaren arteko identifikazioa etengabe gezurtatzen saiatu ziren, identifikazio hori liberal zentralistei eta karlistei interesatzen zitzaielako.

Karlismoaren bigarren ahaleginak, 1872. urtean, zapuztua gertatu zen Alfontso XII.a tronura iritsi zenean. Foruak abolitu zituen 1876. urteko legea egundoko pizgarri politikoa izan zen. Foruzaletasunak oso indar handia zuen, ondorioz, 1878. urteko Ekonomi Itunen sistema, iragankorra, azkenean Aldundien eta Estatuaren arteko erregulazio ekonomiko-instituzionala egiteko tresna bilakatu zen.



BIGARREN SOLAIRUA



- Herri kirolak
- Mitoak eta sinismenak
- Dantzak
- Musika akademikoa
- Herri musika
- Euskara
- Gastronomía

Solairu honetan kirola, folklorea, jaiak, musika, dantza, sinesmenak eta mitoak lantzen dira. Hainbat baliabide eta euskarri erabilita, era ludiko eta sentsorialean azaltzen dira gaiok. Ikus-entzunezkoek eta multimedia euskarriek asko laguntzen dute azalpenak emateko orduan.

“Dantzak eta pastoralak” gaia aurkezten duen gunea ere badago, bilduma eta osagarri ugariarekin. “Musika tradizionala”ri eta “Musika akademikoa”ri buruzko gune bi daude. Musika instrumentuak ikusi eta entzumen moduluak erabili daitezke, eta euskal konpositore eta interpreteen irudiak daude panel argituetan.

“Sinesmenak” gaiaren gaineko informazioa ere eskaintzen du solairuak, ipuin eta elezaharren, umeen kanten, asmakizunen, etab.en bitartez. “Gastronomia” ere azaltzen da, eta “Jolasak eta kirolak” gaiari buruzko ikus-entzunezko gela ere bisita daiteke.

EUSKAL HERRIA

Euskal Herria bere ohituretz harro dagoen lurraldea da. Bertako hizkuntza milaka urtetan gorde du, lanak kirol bihurtu ditu, arbasoen errituei eutsi die eta antzinako janariak egiten jarraitzen du.

Herriarenganako maitasuna, izaera, bizimodu eta ospatzeko modu batenganako maitasuna, urtez urte bizi diren momentuetako bakoitzarekin lotuta dago, jotzen den doinu bakoitzarekin, dantza bakoitzarekin, herrietan ongi errotutako ohitura bakoitzarekin lotuta.

HERRI KIROLAK

Herri kirolak lurreko eta itsasoko lanetatik sortu ziren. Arrantzaleak, nekazariak, egurgileak zein artzainak haien artean norgehiagoka aritzen ziren erronketan, azkarrena edo indartsuena nor zen erakusteko eta apustuak dibertsioaren osagai ziren.

Hortik sortu ziren gero traineru-estropadak, aizkolariak, segalariak, harri-jasotzaileak, idi-probak, bola-jokoa edo artzain txakurren lehiaketak.

Gaur egun, estropadek, pilotak edo sokatirak araudi profesionalak dituzte, eta ikusle asko halako txapelketetara joaten da, eta dirutza handia jokatu ohi da bertan. Pilotak ospe handia du modalitate guztietan: esku-pilotan, palan, erremontean, eta abarretan. Herri guztiek frontoia dute, pilotarako dagoen zaletasun handiaren erakusgarri.



Herri kirolei buruzko ikus-entzunezkoa



MITOAK ETA SINISMENAK

Euskal Herriko mito eta kondaira zaharrenek natura adierazten zuten izaki boteretsuengan dute jatorria. Euskal mitologiako zenbait izaki, hala nola, Mari, tximistaren eta euriaren jainkosa; Sugaar, dragoia; Basajaun eta Basandere, basoko jaun-andreak; lamiak, emakume-itxura duten izakiak; edo Tarttalo, bekokian begi bakarra duen jainua, haitzulo eta basoetan bizi dira, eta euria edo ilunabarra bezalako fenomeno naturalen sorrarazle dira.

Kristautasuna heldu zenean, naturaren kultua erlijio berriarekin nahastu zen, eta hortik bizitzaren zikloa mugatzen duten hainbat ospakizun eta erritu sortu ziren. Horrela, San Migelek dragoia garaitu zuen, San Martinek basajaunak menderatu zituen, Olentzero ikazkina menditik dator Jesusen jaiotza ospatzera, eta San Juanetan suaren eta arbolaren inguruan udako solstizioa ospatzen da.



Ipuin eta kondairak, umeen abestiak eta
esaera zaharrak dituen ikutzeko pantaila



DANTZAK

Dantzaren jatorria antzinakoa eta era askotakoa izanik, jai guztietan dago dantzarako aukera. Euskal Herriko ohituren erakusle onenetakoa da, dantza ugari eta mota askotakoak daudelako, eta urtetan gorde diren pausoen sinkronizazio, ordena eta diziplinarengatik.

Jantziek eta tresnek dantza aberasten dute eta dantzarien mugimenduei sinbolikotasun handiagoa gehitzen diete. Gizarte, nekazaritza zein erlijio dantzak dira eta urtaroak, nekazaritzako zikloak nahiz bizitzako gizarte-aldaketak markatzen dituzte. Igande arratsaldeko zortzikoak eta auresku ospetsuak, baita militar jatorriko ezpatadantza ikusgarriek, gizarte-dantzek, erritu-dantzek, makil dantzek, arku dantzek, etab. tradizioaren indar sinbolikoa dute.



Euskal dantzei buruzko ikus-entzunezkoa aurikularrekin.



MUSIKA AKADEMIKOA

Musika akademikoa eta herri musika elkarrekin bizi izan dira Euskal Herrian lehengo monastegiak agertu zirenetik. Barrokoan, Baiona eta Gasteizko katedraletan edo Arantzazuko santutegiak musika-kaperak egokitu zituzten, hari eta haize instrumentuak gehitu baitzituzten organoa laguntzeko, eta sormen musikaleko toki apartak izan dira. Gainera, Europako joerak eta estiloen bilakaera jarraitu dituzte.

XIX. mendean euskal musikagile nagusiak jaio ziren. Esate baterako, Juan Crisóstomo Arriaga gaztea, Hilarión Eslava, bere solfeo-metodoarekin, eta Pariseko edo Berlineko kontserbatorioetan musika ikasi zuten euskal gazteak, hala nola, Pablo Sarasate. Mendearen bukaeran, musikagileen belaunaldi berria agertu zen: Jesús Guridi, Jose María Usandizaga, Aita Donostia eta Pablo Sorozábal. Horien aurreko belaunaldikoa izan zen Maurice Ravel; bere Boleroak egin zuen ospetsu mundu osoan.



Konpositore guztiak entzuteko aurikularrak



HERRI MUSIKA

Herri musika, arau akademikoetatik bereizten dena eta tradizioa iturri duena, gaur egunera arte transmititu da etenik gabe. Abestirik zaharrenak eta lehenengo txistulariak Erdi Arokoak izan ziren, eta doinuak galdu diren arren, letrak gorde egin dira.

Txistua, danbolinak lagunduta, instrumentu ospetsuena da. Udalek ere kontratatu ohi dituzte jai instituzionalak ospatzeko. Txirula, berriz, Pirinioetan jotzen da, atabalak lagunduta, eta Arabako hegoaldean eta Nafarroan gaitak edo dultzainak entzuten dira.

Alboka eskualde bakan batzuetan bakarrik jotzen zen, normalean panderoak lagunduta, gaur egun trikitixarekin gertatzen den bezala. XIX. mendean ezaguna zen eskusoinu txikia da trikitixa. Txalaparta, berriz, baliteke talde-lanetan nagusi zen jai-giroan sortzea, esate baterako, dolarean sagarra zapaltzen zenean sagardoa egiteko.



Musikatresna bakoitza entzuteko aurikularrak



EUSKARA


Euskara euskaldunen hizkuntza da. Izan ere, Euskal Herria deitzen diogu gure lurraldeari, eta euskararen herria esan nahi du. Gure buruari "euskaldun" (euskara duena) deitzen diogu; hortaz, hizkuntzak bakarrik bereizten gaitu lurraldeko biztanleak.

Euskara bertakoa da, milaka urte ditu eta ez da munduko hizkuntza familia bakar batekin lotzen. Europako hizkuntzarik zaharrena da, latinak ez zuen menderatu eta ez da denboraren poderioz galdu. Egun, miloi bat hiztun baino gehiago ditu, eta euskararen aldaerak edo euskalkiak hitz egiten dituzte.

Lehen idazkiak, ahozko kutsukoak, erromatar hilarrietan edo Erdi Aroko agirietan agertu ziren hitz gutxi batzuk izan ziren, baina XVI. mendetik hona, literatur lanen kopurua handitzen joan da, baita azterlan eta gramatikena ere. Gainera, 1918. urtean Euskaltzaindia, euskararen akademia, sortu zen, euskarari babes emateko.



Euskarari buruzko ikus-entzunezkoa,
audio-guidekin jartzen da martxan.



GASTRONOMIA

Euskal sukaldaritza tradizionala "bertako" produktuetan oinarritzen da, batzuk autoktonoak dira eta beste batzuk, berriz, urrunetik ekarritakoak, baina Euskal Herrian errotuta egonik berezko ezaugarriak dituzte orain. Azoka eta merkatuetan eskualdeko produkturik onenak biltzen dira, osagai bakoitzaren kalitatea zaintzen baita.

Euskal Herriko sukaldaritzako kultura txokoetan eta elkarte gastronomikoetan agerian uzten da. Lagun-taldeak sukaldean aritzeko eta prestatutakoa jateko batzen dira bertan. Edateko, berriz, ardoa, sagardoa eta txakolina (kostaldeko ardoa) hartzen dute.

Horiez gain, zenbait produktutako (sagardoa, indabak, gazta, etab.) kofradiek horiek ezagutzera emateko ardura hartzen dute. Hala ere, Euskal Sukaldaritza Berriko sukaldariek eman diote euskal gastronomiari mundu guztian ospe handiena. Izan ere, tradizioa birmoldatu eta sormenean eta esperimentazioan oinarritutako plater berriak sortu dituzte.



EUSKAL HERRIA MUSEOA

Allendesalazar, 5
48300 Gernika-Lumo

Tfnoa: 946255451

Faxa: 946257415

euskalherriamuseoa@bizkaia.net

www.bizkaia.net/euskalherriamuseoa